

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 4/2014

ERABAKIA, (...) ANDREAK, (...)KO ZUZENDARIAK ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO AUZIARI BURUZKOA, (...) SOZIETATEKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAN KONTSEILARI IZATEA EGOKIA DEN JAKITEKO. IZAN ERE, AZKEN HORREK ZERBITZU-KONTRATU BAT DU SINATUTA (...) SOZIETATEAREKIN, ETA (...) BERE EZKONTIDEAK ZEHARKAKO PARTAIDETZA DU BERTAN.

1.- 2014ko martxoaren 20an, interesdunak, zeina Eusko Jaurlaritzako zuzendari baita, kontsulta bat egin zion Etika Publikorako Batzordeari, IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Erregistro Orokorra bidalitako idatzi baten bidez (sarrera-zenbakia: 4.035). IVAPeko zuzendaria Etika Publikorako Batzordeko idazkaria da.

2.- Interesdunak bere idatzian azaldu du zuzendari-kargua betetzeagatik, (...), S.A. sozietatearen Kontseiluko kontseilari izatea ere egokitzen zaiola, eta 2013ko otsailaren 6tik betetzen duela kargu hori.

3.- Interesdunak esan du (...), S.A.k 2007. urtean (...) merkataritza-sozietatearekin kontratatu zituela URA-Uraren Euskal Agentziarentzat mantentze-lanak eta informazio-sistemak diseinatzeko laguntza teknikoko lanak, bai eta soldata-orriak kudeatzeko eta kontularitza eta finantzak kudeatzeko zegozkien baimenen ezarpena ere. Hala, ondoko urteetan eta gaur egunera arte, sozietate hori lehen aipatutako bi aplikazio horien mantentze-lanak egiten ari da, hasieratik lan guztiak fakturatuz.

4.- Era berean, interesdunak aipatu du 2004. urtetik ezkondata dagoela (...) jaunarekin – berriaz azpimarratu du "ondasunen bananketako eraentzan" ezkondata daudela–, eta bere senarrak %20,919ko zeharkako partaidetza duela (...) merkataritza-sozietatean, (...) jaunak administratzaile bakarraren lanak eginez emandako ziurtagirian, interesdunak kontsultan atxikitakoan, jasota dagoen bezala.

5.- Interesdunak esan du "Uraren Euskal Agentziarentzat soldata-orrien eta kontularitzaren produktuen sistemaren euskarri-zerbitzuak eta urteko etengabeko teknologia-eguneratzearen zerbitzua kontratatzea" kontzeptuan emandako fakturazioaren guztizko zenbatekoa 4.846,12 eurokoa dela –3.253,12 euroko eta 1.593 euroko bi fakturatan– BEZik gabe 2013an, eta 4.490 eurokoa BEZik gabe 2014an. Eta zehaztu du (...)ko Administrazio Kontseiluko kide izendatu zutenetik, organo horretan "ez dela aipatu, ez eta jakinaren gainean jarri ere, (...), S.A. ren eta

(...) merkataritza-enpresaren arteko kontratuzko harremanari buruzko ezer, eta ez dela harreman horren inguruko erabakirik hartu."

6.- Interesdunak egoera horren berri eman dio Etika Publikorako Batzordeari, jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea aintzat hartuta, (...),S.A.ko Administrazio Kontseiluan kontseilari izatea egokitzat jo daitekeen. Halaber, Etika Publikorako Batzordeari egindako kontsultan, galdetu du nola jokatu behar duen aipatu organoan "(...), S.A.ren eta (...) merkataritza-sozietatearen arteko kontratuzko harreman baten berri emango balitz", (...) jaunarekin duen ezkontza-harremana interes-gatazka baten oinarria izan daitekeela kontuan izanda.

7.- Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean EJK) 16.4 ataleko bigarren tartekian aurreikusitako komunikazio telematikorako mekanismoak baliatuta, EBPk honako erabaki hau hartu du,

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1- Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak EJK onartu zuen 2013ko maiatzaren 28ko saioan, helburu garbi batekin: politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza lehengoratzea.

Horretarako, aipatutako kodeak Eusko Jaurlaritzako goi-zuzendaritza eragilea osatzen duten kargu publikodunei eskatu beharreko jokabide, jarrera eta portaerak identifikatzen ditu, haien ekintzak, hala publikoak nola pribatuak, bat etor daitezen aurrez kode horretan finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzeko, haren eraginkortasuna sendotzeko eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin..

2.- EJK-k oinarrizko bost balio ditu ardatz –Osotasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa, eta Berrikuntza–, bai eta funtsezko sei printzipio ere: Inpartzialtasuna eta objektibotasuna, Kudeaketari lotutako erantzukizuna, Gardentasuna eta gobernatze irekia, Onestasuna eta ezaxola subjektiboa, Errespetua, eta Eredugarritasuna.

Balioen eta printzipioen esparru horretan, EJKk jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu, eta EPB honek hain zuzen ere parametro horixe erreferentzia hartuta aztertu behar ditu auzi eta dilema etikoak, hala kodeari beren borondatez atxikitako kargu publikodunek aurkeztutakoak, nola kodearen zehaztapenak egiaz bete daitezen nahi dutela-eta hirugarrenek aurkeztutakoak.

Azken alderdi horri dagokionez, Kodearen 16.3. atalak hauxe zehazten du lehen puntuan: "Etika Publikorako Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du". Halaber, atal horren bosgarren puntuak dio Batzordearen zeregina izango dela "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko keak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- Interesdunak, Eusko Jaurlaritzako zuzendari izanik, EPBren esku-hartzea eskatu du, erabaki dezan etikoki zilegi den (...) S.A.ren Administrazio Kontseiluko kontseilari izaten jarraitzea, kontuan izanda sozietate publiko horrek kontratuzko harreman bat duela 2007. urtetik (...) merkataritza-sozietatearekin, eta bere ezkontideak merkataritza-sozietate horretan %20,919ko zeharkako partaidetza duela. Halaber, galdetu du etorkizunean nola bideratu beharko lukeen "bere partaidetza Kontseilu horretan", baldin eta (...), S.A. ko Administrazio Kontseiluak zerbait jakingo balu sozietate publiko horren eta merkataritza-sozietatearen arteko kontratuzko harremanari buruz edo harreman horri zuzenean edo zeharka eragingo liokeen erabakiren bat hartu beharko balu.

2.- Ikusten den bezala, bi galdera egiten ditu kontsultan. Alde batetik, Etika Publikorako Batzordeari galdetzen dio interesdunak EJK urratuko lukeen, Administrazio Kontseiluko kontseilari izaten jarraituko balu. Eta bestetik, interesdunak nola jokatu beharko lukeen zehazteko jarraibide etiko batzuk jakin nahi ditu, baldin eta EJK urratu gabe kontseilari izaten jarraitzeko kasuan, aipatu Administrazio Kontseiluak (...), S.A. sozietatearen eta merkataritza-sozietatearen artean dagoen -edo etorkizunean egon daitekeen- kontratuzko harreman juridikoarekin zuzenean edo zeharka lotutako gairen bati heldu beharko balio. Bi kasuetan, ordea, bi galderek funtsezko arrazoi berari egiten diote erreferentzia. Egindako bi galderetan, argitu nahi da goi-kargu baten edo parekatu baten abstentzio kasu baten aurrean gauden, aldi baterako interes-gatazka, erreal edo potentzial, batengatik. Kasu honetan, interesduna (...) jaunarekin lotzen duen ezkontza-harremana izango litzateke interes-gatazka horren oinarria.

Aurreko akordioetan, nabarmendu dugu nahikoa izango litzatekeela goi-kargu edo parekatu baten jarduketak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea, haren zintotasunaren, inpartzialtasunaren, osotasunaren edo objektibotasunaren inguruan, Etika Publikorako Batzordeak aurreikusitako kautelazko edo badaezpadazko mekanismoak abian jarri behar izateko. Bada, hain zuzen horixe egin du interesdunak, aztertzen ari garen kontsulta egin digunean.

3.- Kontsultan aipatzen den egitezko harremanari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako zuzendariak

ardura handiz zehazten du "ondasunen bananketako eraentzan" ezkondu zela –eta oraindik horrela jarraitzen duela–, eta (...), S.A.k (...) merkataritza-sozietateari azken bi urteetan egindako lanei dagozkien urteko fakturazioak 5.000 eurokoak baino txikiagoak direla. Azken datu hori bereziki garrantzitsua da, kontuan hartzen badugu, (...) sozietatearen sozietate-estatutuen arabera, 5.000.000 euro baino zenbateko handiagoko kontratuak egiteko soilik eskatzen dela Administrazio Kontseiluak –interesduna organo horretako kontseilaria da– esku-hartzea. Atalase horren azpitik, zuzendari nagusia, presidentea eta presidenteordea dira sozietateko kontratazio-organoak, 1.000.000 euro baino gehiagokoak ez diren kontratuetan, eta horietako edozein, denen adostasunez, 1.000.000 euro baino gehiagoko eragiketa-bolumena duten kontratuetan, 5.000.000 eurokoak baino gehiagokoak ez direnean.

4.- Interesdunak beste datu bat azpimarratu du bere kontsultan: Administrazio Kontseiluko kontseilari izendatu zutenetik, ez dela aipatu, ez eta jakinaren gainean jarri ere, (...), S.A. ren eta (...) merkataritza-enpresaren arteko kontratuzko harremanari buruzko ezer, eta ez dela harreman horren inguruko erabakirik hartu."

5.- Batzorde honen irizpenaren mende jarritako gaia zehazki aztertu aurretik, adierazi behar da EJK-k interes-gatazkekin lotutako zenbait jokabide, jarrera eta portaera debekatzen edo eskatzen baditu ere, gai horretan indarrean dagoen araudia -eta, zehazki, kargua bete aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuetan aritzeari buruzkoa- jasota dago Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek eta haien parekatuek bateratu ezin dituzten jarduerak berariaz arautzen dituen arau juridikoan. Xedapen horretan diziplina- eta zehapen-araubidea aurreikusten da, eta, legezkotasun-printzipioari jarraituz, lege-mailako xedapen bidez araututa dago.

6.- Horren ondorioz, ez dagokio Etika Publikorako Batzorde honi zehaztea kontsulta egiteko idatzian deskribatutako egoerak indarreko antolamendu juridikoa urratzen duen ala ez, goi-karguen eta agintari publikoen desadostasunen esparruan edo kontratazio publikoaren esparruan. EPB honen eskumena da, soili-soilik, deskribatutako egoera EJKren inspirazio-iturri diren balio eta printzipioekin, edota bertan tipifikatutako jarrera, jokabide eta portaerekin bat ote datorren aztertzea, kontuan hartuta kontratu horiek ez dituela interesdunak sinatuko(...), S.A. sozietateko zuzendari nagusiak, presidenteak edo presidenteordeak baizik.

7.- Gaia horrenbestez kokatuta, lehenik eta behin gogora ekarri behar da EJKren 5.2.1 atalak, inpartzialtasunari eta objektibotasunari buruzko printzipioei dagokienak, hauxe ezartzen duela: "Erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodun eta parekatuek beti jokatu dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera".

Agindu horrekin estuki lotuta, 5.2.4. atalak adierazten du goi-karguek eta parekoek

"bere eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezakeen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dutela, eta beharrezko urratsak egingo dituztela edozein interes-gatazka konpontzeko, organo

eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikieneko izanda ere." Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunen mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza".

8.- EJKren 6. atalak, kargu publikodun eta parekatuen osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak biltzen dituenak, ezartzen du, halaber, kargu publikodun eta parekatuek jokabide eta portaera hauek izan beharko dituztela, besteak beste, osotasun-balioari eta inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

- "Ez dute egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo favoritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- Inoiz ez dituzte erabiliko postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan".

9.- Bestalde, Kodearen 11. atalak, onestasanari, desinteres subjektiboari eta interes-gatazkak saihesteari lotutako jokabideak eta portaerak zehazten dituenak, adierazten du interes-gatazkak sortzen direla goi-mailako kargudunek eta parekatuek beren "postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan esku hartzean".

Eta horren ondoren ezartzen ditu kargu publikodun eta parekatuek izan behar dituzten jokabideak, interes publikoen eta norberaren interesen artean gatazkaren bat dagoenean edo sor daitekeenean.

Gehienetan badaezpadazko edo kautelazko neurriak dira, interes-gatazkak saihestea helburu dutenak, jakina. Baina, horrez gainera, neurri horien xedea da goi-kargudun eta parekatuen jarduerari lotutako balizko interes-gatazken inguruan sor daitezkeen kezka edo susmo guztiak errotik ebakitzea.

Jarraibide horiek irakurrita, erraz ateratzen den ondorioa da, EJK-k ezarritako onestasanaren eta desinteres subjektiboaren estandarra erreferentziatzat hartuta, gerta daitezkeen desbideratzeak saihestez gainera, balizko desbideratze horiei buruzko susmo guztiak ere desagerrarazi nahi direla.

Argi eta garbi badaezpadazkoak diren jokabide horien artean daude, besteak beste, honako

hauek:

- “Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-borroka piztea.
- Ez du inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.
- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin elkar jotzen duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitekeen kargu publikodun eta parekatuek berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Publikorako Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute.

Idazkiak berehala jasoko du organo horren erantzuna. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodunak eta parekatuak, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez du esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.

- Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte bere ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku”.

10.- Aurreko erabakietan gogora ekarri dugun bezala, EJKren helburuak dira aurreko zenbakietan aipatutako ataletan, batetik, “guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren [...] mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako **edozein susmo edo zalantza**” (5.2.4 atala), eta, bestetik, “kargu publikoek nahiz parekatuek inoiz ez egitea “persona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo **favoritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo** pitz dezakeen ezer” (6. atala).

Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onetasun, inpartzialtasun, osotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 atalek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, aldeztu aurretik EPB honi galdetzea.

11.- Hizpide dugun kasuan, egiaztatu da interesdunak ez duela esku hartu eta ezin izango duela pertsonalki esku hartu orain arte sinatutako kontratuak sinatzen edo aipatu bi aplikazioen (soldata-orrien kudeaketa, eta kontularitzaren eta finantzen kudeaketa) mantentze-lanak egiteko sinatuko diren kontratuak sinatzen, (...), S.A. sozietateko sozietate-estatutuetan

xedatutakoaren arabera behintzat-. Izan ere, sozietateko zuzendari nagusiaren, presidentearen edo presidenteordearen ardura da kontratu horiek sinatzea, horretarako eskumena baitute.

Horrela ondorioztatzen da, zalantzarik gabe, (...), S.A. sozietatearen erregulazio harmonizatuari atxiki gabeko kontratazioa arautzen duten 2014ko martxoko Jarraibideetatik. Horien oinarria bi dekretu hauek dira: merkataritza-sozietate hori eratzen duen otsailaren 1eko 60/1982 Dekretua eta sozietate-estatutuen aldaketa arautzen duen 20/2009 Dekretua. Aipatu Jarraibideen *Kontzeptu Orokorren* definizioari buruzko epigrafearen 5. puntuan, ezartzen da kontratazio-organoa, oro har, kontratuaren zenbatekoaren arabera izango dela, eta hau izango dela: *"Sozietateko zuzendari nagusia, presidentea edo presidenteordea, era berean eta besteek egon behar gabe, 1.000.000 euro baino gehiagokoak ez diren eragiketetan"*. Hain zuzen, kontsultan horrelako egoera bat aipatzen da: egindako kontratazioetako bakar batek ere ez du gainditzeko urteko 5.000 euroko zenbatekoa.

12.- Aurreko puntuan adierazitakoaren ildotik ateratzen dugun ondorioa da ez gaudela interes-gatazka baten kasuan; izan ere, aipatu EJKren 11. atalean ezarritakoaren arabera, goi-mailako kargudunek eta parekatuek beren "postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabakietan **esku hartzean** sortzen dira interes-gatazkak". Interesduna "ondasunen bananketako eraentzan" ezkondu izanak ez du eragozten EJKko erregela hori kasu honetan aplikagarria izatea. Izan ere, transkribatutako paragrafoaren arabera, goi-mailako kargudunak edo parekatuak "norberaren interes pribatuak" edo "zuzeneko senideen" interesak ageri diren gai publikoetan esku hartzen duenean eta erabakiak hartzen dituzenean sortzen dira interes-gatazkak, "zuzeneko senidea" adierazpena derrigorrez goi-mailako kargudunaren edo parekatuaren ezkontidearekin lotu behar gabe (ezkontidea irabazpidezko ondasunen ezkontza-eraentzan ezkondu dagoenean). Debeku-arauak bereizten ez duenean, ez da egokia bere aplikazio-esparrua murrizteko bereizketak ezartzea.

Hala ere, interesdunak (...), S.A. sozietatearen eta (...) merkataritza-sozietatearen artean hitzartutako lanen kontratazioan zuzenean eta pertsonalki **esku hartu ez izanak eta, printzipioz, esku hartzeko asmoa ez izateak** -kontratazio hori egungo magnitudeetan mantentzen den bitartean behintzat- erabat desagertzen du interes-gatazka bat agertzeko zalantza edo susmoa. Goi-mailako kargudunak edo parekoak kontratazioan zuzenean eta pertsonalki parte hartzen ez duenean ez dago interes-gatazkarik eta, printzipioz, ez luke egon behar interes-gatazka izatearen inguruzko arrazoizko susmorik.

13.- Bestalde, mantentze-lanen kontratu horiek 2007. urtean sinatu ziren -hau da, interesduna Eusko Jaurlaritzako zuzendari izendatu baino bost urte lehenago-. eta ordutik, merkataritza-sozietateak etenik gabe egin ditu lan horiek eta zuzenean (...), S.A. sozietateari fakturatu dizkio. Hori dela eta, pentsa daiteke interesdunaren izendatzearen ondoko mantentze-lanen kontratuak aurretiko harreman juridiko baten jarraipen arrunta baino ez direla izan, eta ez

direla hauteman behar harreman horretan baldintza berezirik edo salbuespenezkorik, interes faltsuak bultzatutako berariazko jarduketa bat egon dela susmarazi diezagukeena gutxieneko oinarri batekin.

Hori dela eta, kontsultan planteatutako lehen galderari erantzunez, ezerk ez du eragozten interesdunak sozietate publikoan kontseilari kargua betetzen jarraitzea.

14.- Interesdunak egindako bigarren galderari dagokionez, badirudi bistakoa dela interesduna abstenitu egin beharko litzatekeela -edo, hala badagokio, Etika Publikorako Batzordeari kontsultatu beharko liokeela-, edozein egoera dela eta (...), S.A.ko Administrazio Kontseiluak argibideak eskatu beharko balitu edo erabakiren bat hartu beharko balu sozietate publiko horren eta merkataritza-sozietatearen arteko kontratuzko harremanen inguruan edo etorkizunean izan ditzaketen kontratuzko harremanen inguruan. Izan ere, zegokion izapideak akats bakar bat ere ez balu ere eta benetan interes-gatazka bat ez dagoela egiaztatuko balitz ere, EJKren arabera, bere jarduketak partzialtasunik ez duela, subjektiboa dela edo "zenbait pertsonaren edo erakunde publikoren edo pribaturen aldeko faboritismo-nahia" duela pentsaraz dezakeen edozein susmo edo zalantza errotik kendu beharko litzateke.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Interesdunak ez du Etika eta Jokabide Kodea urratzen, (...), S.A. sozietate publikoko Administrazio Kontseiluko kontseilari izateagatik, eta (...) merkataritza-sozietateak, non bere ezkontideak %20,919ko zeharkako partaidetza duen, sozietate publikoarekin kontratuzko harreman bat izateagatik, Erabaki honetan azaldutako baldintzetan. Erabaki honen 11., 12. eta 13. puntuetan adierazitako baldintzetan, interesdunak sozietate publikoko kontseilari izaten jarrai dezake.

Bigarrena.- Etorkizunean (...), S.A. sozietateko Administrazio Kontseiluak kontratu horien egikaritzearekin lotutako gaiak konpontzen esku hartu beharko balu edo merkataritza-sozietateari eragiten dion erabakiren bat hartu beharko balu, interesduna abstenitu egin beharko litzateke, edo zalantzarik balu, Etika Publikorako Batzorde honi beharrezko kontsulta egin beharko lioke.

Etika Publikorako Batzordea

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilarenan